



Gipuzkoan, enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko programa.

Urtea :2020 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Programaren helburua da sustatzea kalitatezko enplegua, enpresen errotzea, lehiakortasuna, bere jarraitutasuna eta jasangarritasuna eta enpresetan pertsonen partaidetza aktibo, eraginkor eta erantzunkide baten bitartez.

ENTITATE ONURADUNAK

II. Eranskina:

Gipuzkoan dauden enpresak.

III. Eranskina:

- Gipuzkoan dauden enpresak eta empresa-elkarteak.
- EAEn kokatutako enpresa elkarteak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzeko dituztenak.
- Gipuzkoako erakunde sindikal adierazgarrienak.
- Gipuzkoan kokatutako unibertsitate publiko eta pribatuen zentroak, sailak, atalak, institutuak eta bestelako ikerketa-unitateak, eta partaidetzan, eta antolakuntza edo gizarte berrikuntzan espezializatutako ikerketa-zentroak.
- Gipuzkoako entitate edo elkarte estrategikoak, hezkuntza, ekonomia eta gizarte, toki edo eskualde izaerakoak, Gipuzkoako ekonomia-jarduerako zona edo sektore bateko eragile egokiak edo giltzarriak biltzen dituztenak, interesa dutenak lankidetzan aritzeko ikuspuntu integral bat garatu dadin enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko.

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz laguntzeko moduko jarduketak izango dira:

II. Eranskina: Ezartzeko prozesuak.

III. Eranskina: Ikerketakoak eta arlo hauen garapeneakoak: tresnak, metodologiak, lanabesak, ebaluazio sistemak, hedapena, sozializazioa eta balorizazioa, eta esperientziazioa:

- partaidetza, kudeaketan
- partaidetza, erabaki estrategikoetan
- partaidetza, emaitzetan
- partaidetza, kapitalean.

Proiektu horiek proposatu eta garatu daitezke helburu hauek dituen jarduketa batetik: sendotzea eta garatzea antolakuntza-eraldaketa, lehiakortasuna eta jasangarritasuna, jarraitutasuna eta belaunaldi aldaketa, transmisioa, gizarte ekonomia, eta baita enpresa-berregituratze eta berrabiatze bereraino ere.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zailentzat gabe lotuta daudenean.



Barruko langileen kostuak direnean:

- II. eranskinean aurreikusitako proiektuak direnean, barruko langile kostuek ezingo dute guztizko kostu hautagarriaren % 40 gainditu, eta hautatzeko gehieneko muga orduko 35 euro izango da.
- III. eranskinean aurreikusitako proiektuak direnean, hautagarritzat jotzeko gehieneko muga orduko 69,29 euro izango da.

Kanpoko langile kostuak direnean kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko gehienez.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Ez dira kostu hautagarriak izango zeharkako gastuak edo orokorrak, salbu eta III. eranskinean aurreikusitako proiektuen kasuan, kostu hautagarri gisa zenbatuko baita, justifikatu beharrik gabe, langileen zuzeneko kostu lagungarrien % 15 bakarrik.

Bidaia eta mantenu kostuak bakarrik izango dira hautagarriak proiektuak sustatzen ez dituzten entitateetako langileei dagokienez, baita III. eranskinean aurreikusitako proiektuak, non bidaiak eta mantenua proiektuaren berezko parte diren.

Gastu hautagarriak izango dira zuzenbide eta finantza aholkularitzako gastuak, eta diruz lagundutako proiektua gauzatzeko aditu-gastuak, baldin eta diruz lagundutako ekintzari dagozkionak badira eta hori ongi prestatu eta gauzatzeko ezinbestekoak badira.

DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzek ehuneko hauek izango dituzte: kostu hautagarrien % 75 II. eranskineko jarduera hautagarrietan; eta kostu hautagarrien % 100, berriz III. eranskineko jarduera hautagarrietan.

EMATEKO PROZEURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ALA BATERAEZINTASUNA

Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak helburu bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderek, baita edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional, europar edo nazioartekotik etortzen direnekin ere.

BETETZEKO EPEAK

- Eskaerak aurkezteko epea: **2020ko irailaren 8an, goizeko 12:00etan amaituko da.**
- Jarduerak hasteko epea: **dirulaguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**
- Proiektuen exekuzio data: **2021eko ekainaren 30a.**
- Proiektuak justifikatzeko data: **2021eko uztailaren 30a.**

ARAUDI APLIKAGARRIA

[Gipuzkoan, enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko programa](#)



ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/partaidetza/partaidetza>

- Diru-laguntzak kudeatzeko aplikatiboa

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENeko ZERBITZUA

- Kudeaketa administratiboa: 943.112227
- Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.eraldaketa@gipuzkoa.eus